## SECCION AMENA.

# ¡ZER PENA!

Artzai bat Zumarragan
burni-bide billa
zoratuba zebillen
galdurik makilla.
Zerbait festa gertazan
¡ura jende pilla!
neska mutillak anchen
bazuten nazpilla
Estuasun arekin
guztien tartian
lekurik izan ez da
sartuzan kochian.
Iŝiri zan bulkaka
baten magalian
oraindiaño etzan
arkitu *trenian.*
Bestien farkeriak
etzuten larritu,
chilibitua jota
ziraden mugitu.
Ordu pare batian
zanian arkitu
Donosti eder ontan
oso zan arritu.
Bere bolchachuari
chit maiz eragiñez
asbera penarekin
iya bai negarrez
—Jakin izan banuben—
zijuan esanez
—Zer bide laburra zan
emen nitzan oñez.—

MARCELINO SOROA.